

Adiskidantza baten kronika sentimentalala

Jose Luis Zumetak omenaldi-liburua egin dio Laboa zenari. Aspaldiko lagunak ziren. Ni Usurbila joan naiz adiskideen arrastoan bila

Han bizi ziren **Artzetarrak ere.** Eta Laboak Txaro Artzeren ile-apaindegian mozten zuen ilea

'Zumeta' taberna, frontoi atzeko murala, 'Zendoia' tabernako beste murala, handik gertu dauden 'txoriak'... Zumetaren presentzia etengabea da



LAUBIDE

FELIX IBARGUTXI

Mikel Laboa Kate-drak eskatuta, Mikel Laboaren

erretratu batzuk egin ditu **Jose Luis Zumetak**, guztira hamaika, eta emaitza liburu batean publikatu da: **'Xume. Laboa Zumetarenean'**. Aspaldi hasi ziren margolaria eta kantaria harremanetan. Ez Dok Amairu 1965ean sortu zen eta hurrengo urtean ezagutu zuten elkar. Laboaren lehenengo hiru disko txiki haietako portadak **Mikel Forkadak** egin zituen. Baina 1969ko 'Haika mutil' hartakoa Zumetak. Eta gero 1974ko 'Bat-Hiru' mitikoa (benetan mitikoa) etorri zenean, hura ere Zumetak ilustratu zuen. Handik aurrera, kantariaren disko guzti-guztiak Zumetaren 'zigilua' eraman zuten.


Adiskide egin ziren. Askotan joaten ziren Zumetaren gurasoek zeukaten jatetxera, Usurbilgo San Esteban auzora. Amak, **Iñaxik**, kaxuelita goxoak egiten zituen. Emazte, ume eta guzti ere joaten ziren, batzuetan. Inoiz, **Andoni Elizondo** Realeko entrenatzailearekin ere bai, Mikel Laboaren arreba **Elirekin** baitzegoen ezkondu-ta.

«Sarri-sarri etortzen zen Mikel, eta beti emazte **Mari Solekin**. Orduan hau taberna zen, baina ematen zituen kaxuelita eta merien-dak ere. Mahaian esertzen zenean, denetik probatzea gustatzen zitzaion. Batari eta besteari eskatzen zion emateko pusketatxo. Eta, jatordua bukatutakoan, 'gin-tonic estudiantil' bat eskatzen zuen; alegia, ginebra gutxirekin egindakoa. Askotan geratzen zen lo egitera», esan dit **Begoña Solaberrietak**, gaur egungo nagusiak.

Etxe horixe da Jose Luisen jaiotetxea. Aspaldiko taberna hura guztiz zaharberritu zen 1994an, eta orain jatetxea da. Sarreran eta jangelan artistaren zortzi margolan daude, eta kanpoko sarrera ere hark dekoratua dago.

Citroën 2CV-n sartu eta aurrera

Baina ez dezagun ahaztu juntadizo haietako beste protagonista bat: **Joxan Artze**. Hura ere usurbilda-



Hiru artelan. Goian, Jose Luis Zumetak Mikel Laboari egindako erretratueta bat. Behean, Zumetaren aspaldiko murala eta Laboaren omenezko eskultura. :: usoz

rra, poeta eta, anaia **Jexu**-xekin batera, txalaparta jotzen hasita zegoena. Gainera, Laboak lehenago ezagutu zuen Artze, Zumeta baino. Bata 1965ean, bestea 1966an. **Mari Sol Bastidak**, Laboaren alargunak, gogoan dauka: «**Sistiaga** margolariaren etxean ezagutu zuten elkar. Mikel eta **Lourdes Iriondo** etxe hartara joan ziren eta ikusi zuten Joxan, «musika arraroak» egiten zituen gizona. Hain zuzen ere, Artzek idatzi zuen **'Txoria txori'** abesti ezaguneko testua, eta gero **'Gure bazterrak'** eta beste batzuk.

Eta orain irudika ditzakegu topaketa haiek. Mikel Laboa eta emazte **Mari Sol** Citroën 2CV hartan azalduko ziren Usurbila. Seguru asko arratsalderen batean, Mikel goizez San Migel Patronatua aritzen baitzen, arazo psikikoa zuten haurrak ardatzen. Behin, Usurbilen, batzuetan basoerdi batzuk hartuko zituzten Zumetarekin. Beste batzuetan, **Joxan Artzerekin** emango zuten paseoa. Edota biekin batera. Artze eta Zumeta aspaldiko lagunak ziren: herri-riaren zeresana eman zuten elkarrekin motorrean Sue-

diaraino egin zuten bidaiak, Londresetik pasatuz, 50eko hamarkada bukaera aldera.

Beste batzuetan, ilea mozteko aprobetxatuko zuen Mikelek. **Joxan Artzeren** arreba **Txarok** ile-apaindegia zeukan eta hark mozten zion ilea gure artistari. «Emakumeentzako ile-apaindegia zen gehienbat, baina gizaseme batzuk ere etortzen ziren -adierazi dit Txarok orain dela gutxi-. Mikel azaltzen zen eta, beste norbaitekin lanean ari banintzen, esaten nion noiz buelta zitekeen. Bitartean paseatu egiten zuen herrian zehar, edo basoerdi bat hartu». Itxi egin zen duela urte batzuk ile-apaindegi hura, eta orain gazte batzuek lokala ipini dute bertan.

Figurazio eta abstrakzio artean

Noski, egin liteke ibilbidea Zumeta eta Laboaren arrastoan atzetik. Margolariaren lanik ezagunena frontoi atzealdeko murala izango da. Zeramikazkoa, 1973-74an egina, Udalaren aginduz. Handia da, 16 x 9 metrokoa. Abstraktua da eta kolore biziak ditu. Eta handik gertu, Laboaren omenezko plaza eta eskultura. Plazak badu plaka berezibat, **'Pelex'** artista usurbildarrak egina, eta eskultura, **Juan Jose Aranguren** donostiarraren 'Ikimiliklik' delakoa. Hori aukeratu zuten, 27 proiekturen artean.

Handik gertu, Zumetaren 'txori' batzuk daude. Kale Nagusiko 10. zenbakian, 2. eta 3. eskailearen artean dagoen patioan, ikus daitezke eskultura horiek. Metalezkoak dira, arinak. Kale Nagusian jarraituz, Zendoia tabernan mural bat dago. Hura, berriz, guztiz figuratiboa. Eta figuratiboa da baita ere Zumeta jattetxeko kanpoaldeko egurrezko murala; baina, kanpo librekoa izanik, eguzkiak jan egin dio kolore pixka bat.

Badago Zumetaren beste mural bat ere umeentzako jantzi-denda batean, baina toki hura, guztiz publikoa ez denez, ezin sartuko dugu gida koskor honetan.

Bukatu aurretik, esker-erak eman nahi dizkiot **Leire Canori**, Zumetaren 'inventarium' hau berea baita azken batean.

fibargutxi@diariovasco.com